

## Itun berria'ren euskal itzulpenak eta Zaitegi Abaren “Bidalien egiñak”\*

(Translations into Basque of the New Testament and the Facts of the Apostles by  
Father Zaitegi)

Ibinagabeitia, Andima

ISBN 978-84-419-932-0

---

*Egileak hiru talde handitan sailkatzen ditu Itun Berriaren euskarazko itzulpenak, itzultzaileak gidatu zituzten helburuen arabera: Leizarraga protestantea eta haren jarraitzaileak; Bonaparte printzeak eginarazi zituenak eta, azkenik, talde heterogeneoena, Haraneder ordezkari duena eta, besteak beste, Olabide hartzen duena bere baitan. Dokumentaturiko sailkapen hirukoitz horri, Itun Berriari buruz euskaraz egin den iruzkin bakarra erasten dio: Zaitegi apaizaren “Bidalien eginak”.*

*El autor clasifica en tres grandes grupos las traducciones al vasco del Nuevo Testamento, en función de los propósitos que guiaron a los traductores: el protestante Leizarraga y seguidores; las encargadas por el príncipe Bonaparte y, finalmente, el grupo más heterogéneo representado por Haraneder, que incluye a Olabide, entre otros. A esta clasificación tripartita y documentada, añade el que considera único comentario sobre el Nuevo Testamento hecho en vasco: “Los Hechos de los Apóstoles” del padre Zaitegi.*

*L'auteur classe les traductions en basque du Nouveau Testament en trois grands groupes, en fonction des intentions qui guidèrent les traducteurs: le protestant Leizarraga et ses adeptes; celles commandées par le prince Bonaparte et, finalement, le groupe le plus hétérogène représenté par Haraneder, qui comprend Olabide, entre autres. Il ajoute à cette classification tripartite et documentée ce qu'il considère comme seul commentaire sur le Nouveau Testament fait en basque: “Los Hechos de los Apóstoles” du père Zaitegi.*

---

\* Archives du Chanoine Pierre Lafitte. Bayonne.

“Uzkurtz-elerti” sailean IBINAGABEITIA´tar ANDIMA´k aurkeztu txostena.

Arlo zabala benetan auxe, eukal-literatura urri ta eskaxa bada ere. Itun Berriaren itzulpenik egin izan da euskeraz 1571´garreneko urtea ezkeroz. Ez noski, inguratu ta itotzen gaituten izkuntza iakintsuetara bezin ugari, alare euskaldun geienak uste duten baiño ugariago. Itzulpen guztiak nere lantxoaren mugartean artu nai izan ditut. Irakur bearrik izan ditut, araka bearrik ere bai; ez dut ordea, uste, nere xedea zearo iritxi dudanik.

Lan au egokienik zedarritzeko, irakurleari ernegarri ta argiago gerta dakion itzulpen ta itzulariak, samaldan, ta nora-gabe artzeke, iru sail berezietan bildu ditut, sail-berean itzulpen guztiak bakoizka aipatu, ta al izan ezker, ikertzeko: aurrenik LEIZARRAGA TA AREN IARRAILEEN SALDOA: urrenik LOUIS LUCIEN BONAPARTE PRINTZEARENA: azkenik HARANEDER ta katoliku itzularien taldea, talde izenik merezi ba-lu. Ondoren Zaitegi Abaren “BIDALIEN EGIÑAK”, itun berriaz euskeraz idatzi iruzkin bakarra, zaratuko dut.

Gai auetaz oitutako irakurleak sail bakoitzaren armoa errex aski atzeman dezake. Leizarraga ta aren ingurukoak zarberritzea edo reforma zuten iomuga; beraz, Eliz katolikuen magaletik landa ari ziran. Bonaparte Printzearen izkuntzikasterako egiñak dituzute; au ere etzen Eliz aginduetaz baliatu. Haraneder ta katolikuenak aldiz, Eliz Ama Deunaren magalean, aren lege ta irakatsiei iarraituz egindakoak dituzute. Oriek orrela, saileratu gaiten, ez orratio, irakurleari barka eskatu gabe nere lantxoaren elkortasun eta zailtasuna bide dala. Aringarrien egitera bortxatuko naiz alare.

## IOANNES DE LEIZARRAGA

1571, “IESUS CHRIST GURE IAUNAREN TESTAMENTU BERRIA. Rochellan.

Pierre Hautin, Imprimiçale”.

Arena baiño len, 1545´garren urtean Bordele´n argitaratu zan aurreneko euskal-idaztia: Detxepare´n *Linguae Vasconum Primitiae*. Idazti onekin, bere egilleak, euskaldunak iratzarri nai izan zitun euskeraz idaztera iarri zitezen. Ogeitasei urte geroago, euskerazko bigarren liburuak argia ikusi zun, ez noski aurrenekoaren eragitez: *Iesus Christ gure launaren Testamentu Berria, Iohannes Leizarraga, Bercaizcoa c Rochellan 1571´garren urtean*.

Liburu ontan Itun Berria, oso-osorik, ots, Ebaingeriak, Bidalien Egiñak, Bidalien Idazkiak eta lon´i Ageritakoa, argitaratu izan zan La Rochelle´n, Pierre Hautin´en irarkolan, apain eta txukun aski. Julien VINSON, izkuntzari ta liburu-zaleak dienez<sup>1</sup> ekoizpen dotore ta benetan txukuna. Arrigarriena, gaineratzen du iakintzu berak, irar-uts gutxi baizik ez omen ditu atzeman al izan idazti mardul ontan.

Nor genun Laizarraga? Aren idazti ederraz ari izan diren iakintsuek ezin bildu izan ditute, gaurdaño beintzat, Leizarraga´ri dioazkion zeapen guztiak, iaiotz-garaiari doazkonak batik bat. Berakoitze´n ioao zala badakigu, ez ordea, zein urte ta egunetan. Berakoitz (Brisous pantzeraz) Lapurdi´ko errixa bat duzute. An sortu, ta apaiz egitera eldu zan. Gaur ziur-ziur dakigu gainera, apaiz katolikua zala. Onatx Jacques Bela, Maule´ko semeak, ugenotarra berau, diona:

1. Ikus: *Essai d’une Bibliographie Basque*. Paris 1891.

“Aurreneko Elizaren ondakiñen berritzalleak etziran gizon alotz, elizan arduradun eta agintedun baizik. Alaxe France´n Chastillon´go *kardinala*, Calvin Noyon´go *kalonje* ... e.a. Euskaldunen artean: Xuberó´n Jean d´Etchart, *apaiza*, Sanz de Tartas, Pierre Landetcheberry *apaizak* biak. Lapurdi´n Jean de Leizarraga, Berakoiztarra, *apaiza* e.a.”<sup>2</sup>.

Izenaren inguruan ere, eztabaidarik sortu izan da, nola idatzi bear dan alegia, Liçarrague ala Leizarraga. Batetik Vinson eta Gavel, bestetik Dodgson eta Schuchardt. Nik, Schuchardt´i iarraituz *Leizarraga* idazten dut, euskeraz ari zanean Leizarraga´k berak ere orrelaxe idazten bai zun<sup>3</sup>.

Leizarraga´k ordea, apaiz katolikua izan arren, reformako bidea beretzat autetsi zun eta protestanteen taldean sartu zan eliz katolikuari uko egiñaz. Testamentu Berriari ezarri zion sarrera-eskeintzan, itz oargarririk arki genezake egin zun aldakuntza ortaz: “*Ecen halaz eman içan çait, ithoa beçala azpitik nendukaten gogo arranguretarik eta orhoitzeac ere buruco biloa lot eraciten drauten captivitatezco suiectionetic ilkitceko occasino eta moien* ...”<sup>4</sup>. Liskar gogorrean arkitu bide zan bere baitan apaiz iakintzu au eta liskarretik gogoa iarei gurarik zarberrizale tara makurtu zan. Ez dakigu, ordea, gogoarentzat atsedean eta pake osorik iritxi ote zuenik.

Euskalerriko zarberrizale porrokatu ta sutuena Jeanne d´Albret, Naparroa ta Bearn´eko erregiña izan zenuten, Prantzi ta Naparroa´ko Henri IV erregearen ama. 1555 ezker erregiña onek gogoz artu zun erlijio berria euskaldunen artean sartzeko burubidea, alargunduz gero batez ere. Elizetako irudiak kendu-erazi zitun bere aginterrian, baita ere asmo gogorrenak artu zitun eliz-gizon ta kristauak bide beritik sar-erazteko.

Arrigarriena nola Andre azkar oni Itun Berria euskeraz ezartea bururatu zitzaion. Ari zor diogu euskaldunok euskeraz idatzi dan liburu bikainetarik bat. Hura gabe, gaurko euskaltzaleek ez genitun ezagutuko garai artako euskeraren ondasunak. Ori bederik erregiña aundi ta negartsu ari, euskal erreinuko azken erregiña naigabetu ta menperatuari zor diogu. Gaitzik ez omen, ondore onik gabe. Aipatu erregiñaren agindu ta eragitez, Leizarraga, garai artan Labastide´ko artzai, Itun Berria euskeratzen asi zan eta lana bukatu ondoren, erregiñak berak irar-erazi zun.

Ezin mugatu izan dugu lan goragarri ori zein urtetan asi zun. Paper zarretatik agiri denetik, 1565-garren urtean bukatu rik zeukan bere itzulpena. Ez dakigu ere zenbat urte iraun zun itzul-lanean. Zenbait urtez, dudarik gabe, arnas ta adore aundiko lana baita Itun Berria osorik itzultzea<sup>5</sup>.

Biotz zabalenez atxiki zitzaion bere lanari, baiñan bidean arkitu zitun beaztopakin ikaratuta, bertanbera utzi nai izan zun. Liburuko erregiñari eskeintzatic ageri danez, Agramont, Belzunce, Maharin´go iaunak eta erregiñak berak, Leizarraga adoretu zuten, lanean iarrait zezan. Ara bere itzak:

“*Hala ere consideratzen nuenean nola gure denporan ere anhitz personage iakintsurik Testamentu Berriaren traslacionetan emplegatu izand den, hanbat latinez, frantsesez, nola anhitz berce lengoage abretsez eta practicatuz: eta guero nola traslatazale bere eta hayen ondoan berce anhitz gauçatan, bay sensuan bay lengoagean cer erran ukhan duten, eta ikhusirik alaco-*

2. Ikus: Jean Jaurgain, *Liçarrague Pretre* RIEV-1908, 601 orrialdean.

3. Ikus: RI-08.

4. Ikus: T.B. Sarrera.

5. Ikus: G. Lacombe “Du nouveau sur Leizarrague et ses collaborateurs” RIEV-1931, 362 orrialdean.

*ekin comparatzera ezdeus baino ezdausago nintzela... Carguaren artzera bothirik ezin naidiqueen, eta guti falta zedin non ezpainendi choil guibelera, nekussanean hainbatez handi-ago, zenbatez nic escribatu dudan lengoage mota baita sterile- netarik eta diversenetarik, eta oraino, translationetan behintzat usatu gabea.*"<sup>6</sup>

Egia oro noski, Leizarraga'k erasiak. Arrezkero euskerak aurrerapiderik egin du, ala ere idazten ari geranok ongi eza- gutzen ditugu bidean arkitu oi ditugun beaztopak. Leizarraga'k etzun bidelagunik izan, aren aurrekitoez ezertxo ere euskeraz ezpaitzuten idatzi. Bidea urratzera bakar iarri zitzaigun, bide berria urratzera alere.

Beste zerbaitek ere, bizkar gaiñean artu lana amaitzeko zirikatu zun: "*Heuscaldunac berce natione gucien artean ezgarela ain bassa, non gure lengoagez ecin ezagut eta lauda deçagun gure lainko launa...*" uste ez lezaten. Beaz euskal- duntasunak ere izan zun almen Leizarraga'ren biotzean<sup>7</sup>.

Nundik egin zigun bere itzulpena? Irakurriaz beste gabe laister antzeman genezaioke; Leizarraga'ren idazkerak pran- tsez ixuri aundia dizu. Noiztanka eladerazko Itun Berria ere erabili duala esan diteke, bainan ez; arek erabili pantzez itzul- pena, ori bai, eladeratik egiña zenuten noski. Dodgson euska- lariai dionez, Calvin'en itzulpenari itzez-itx atxiki zitzaion Leizarraga<sup>8</sup>.

R. Lafon'ek dionez, Leizarraga'k calvindarren prantsez itzulpenak usuenik erabili zitun, "*Alabaina ezin ukatu noiztan- ka eladerazko iatorrari atxiki zitzaionik, baita Vulgata'ri ere*". Argi-bidez iru edo lau idaztune eladerazko beste ainbeste Leizarragaren euskerazko ta Calvin'en pantzerazkoekin erka- tzen ditu. Ederki sendotzen ere digu idaztune oietan Leizarraga urbilagotik datxikiola eladerari Calvin edo aren tal- deko itzultzaleak baino. Idaztune gutxi izaki, gure ustea gotor- tu besterik eztagite, ots, Leizarraga'ren itzulpena Calvin'ena- rekin lerroz-lerro dabillega. Etxitekean bestela izan ere<sup>9</sup>.

Leizarraga'ren izkelgia lapurdiera duzute, auzoko izkelgiz naasia: "*Bat bederak daki -dio berak- heuscalerriari quasi etche batetik bertzera ere mintzatzeko manera cer differencia eta diversitatea den: raçoin hunegatik sensu egiazcotik alda- ratu gabe, lengoageaz den bezebatean ahalik gueyena gucieri adi eraciteari iarreiqui izan gatzaitza, eta ez choil edozein leku iaquineco lengoage bereziri*"<sup>10</sup>.

Vinson'ek etzuela bere sorterriko izkelgia erabili dio, ots Berakoizte'koa. Oriek Vinson eta aren antzeko iakintsuen txo- rakeriak dira; euskera mendarte estuetan artu bearra. Leizarraga'k Berakoitz eta Lapurdi guztiko euskeraz bere lana osotu zun eta beste izkelgiz iantzi ere bai, benetako euskalza- leari zegokionez, eta ederki egin zun, gure izkuntzaz dauka- gun monumentu zaar eta okituena eraikitzeko.

Dodgson iaunari eskutitz batean, ara zer zesaion Intxauspe kalonjeak Leizarraga'ren euskerari buruz: "*Lizarraga'k ditizu hizkuntza hanitz, orai ihun entzuten eztenik, nahiz Eskualdunek ehiguera gogoatzen dutien hitzourkho*

*lagunetarik. Hartzen ere dizu hanitz hitz prantsesetik, auherre- tan, Euskarak beriak lutukialarik, ber gaizen erantzuteko. Dena den dela, harek egin dian liburua hanitz ikhousgarri eta balios duzu, orduko mintzaya erakasten baiteiku*"<sup>11</sup>.

Egia duzute, izan, Intxauspe'k diona. Maizegi erdal-itzez Leizarraga'k kutsutu izan du bere itzulpen ederra, bainan itz bikaiñik eta iakingarrik asko ematen dizkigu beltzune orien artean, egun zearo ilda datzaten itz aunitz. Ark ere, noski, lan orri egun lotu ba'litzaio, txukunago idatziko zun, garbiago ale- gia. Ni neuk ez diot Leizarraga aundiari errurik egozten: gure arloan aurreneko atxurlari izan dugun onen gan, gauz onik ikasi ta atzeman bai dituzut.

Irarkolara esku-idatzia igorri aurretik, Leizarraga'ren lana ikertu ta arakatzeko batzordea izentatu zuten. Lau gizon, Leizarraga'ren menpean, lan ortara iarri ziran: M. de la Rive, Tartas, Landetxeberri eta Tardetz, laurak euskaldunak eta apaiz ugenotartuak. 1565-garrenean asi zuten arloa<sup>12</sup>.

Arik lasterrera Rochella'n, Hautin ospetsuaren etxean, irar lanak asi zituten, eta lan oiek iraun zuten denpora guztian, Leizarraga ere an izan zan irarlana zaitu ta zuzentzen. Orregatik utz gutxi atzeman ditezke aren liburu ederrean.

Berebiziko poza artuko zun noski irarlana bukatu ziotene- an, eta 1571 gko. Iraillaren 24'an itzok idatzi zitun: "*Egun hunekin Testamentu Berria euskeraz lehenik imprimitzen aca- batu*"<sup>13</sup>. Bazun pozbiderik, baita arrobiderik ere.

Ez da beste liburu bat Euskalerrian izan Testamentu Berriak ezagutu ditun zoritxar eta ospeak ezagutu dituenik. Zoritxarrik aski egari zitala argi ta garbi dago, bada 24 ieki baiño ez dira gureganatu. Beste guztiak surtan kixkaldu zitu- ten noski. Zoritxar aundiagorik ezin gerta lezakion idatzi bati. Protestante izurria bere barnean zekarrela-ta, liburu ok oildu zituten<sup>14</sup>. Laramendi'ren garaian ere, nekez arkitu zitekean. Onatx bere iztegiaren sarreran diona: "*Luzaro ekin ondoren Lizarraga'ren Testamentu Berria eskuratzeko zoria izan nizun*"<sup>15</sup>.

Aldi ontan osperik ere izan du liburu aipagarri orrek. Zenbait idaztizale, liburu orren atzetik oldartu dira. Bere orrial- deak zear ere oro ikusi ta ikasi naiez. Gure artean gutxitan ger- tatu dana, ekoizpen berriak egin dituzte, naiz iakintsuen lagun- garri, naizta eliz-berriko dotriñen zabalgarri. Orra aipatu 1571 garrenekoaren ondoren argitara ekoizpen osoak:

1600 urtean.

Strasbourg, Verlag Von K.J. Trübner

LEIZARRAGA(S) BASKISCHE BUCHER VON 1571 (Neues testament, kalendar und Abc) in genauen Abdruck herausgegeben. Von Th. LINSCHMANN und H. SCHU- CHARDT. Mit Unstertü zun der Kais. Akademie der Wissenschaften zu Wien.

Schuchardt'en ekoizpen ontan Testamentu Berria'z gai- nera Leizarraga'ren "Kalendrera" ta "A b c" irakurbide ta ikas-

6. Ikus: T.B. "Gucizco Andre Noble Ioanna Albrete Nafarroaco..." idaztiaren aitzinean.

7. Ikus: T.B. aipatu tokian.

8. Ikus: E.S. Dodgson "The Leizarragan Verb". London. Lan au zatika argita- ra zun.

9. Ikus: R. Lafon "Le Systeme du Verbe Basque au XVI'e siecle". Bordeaux, 1943.

10. Ikus: T.B. 1571 (Irakusleari oarrean).

11. Ikus: Dodgson "The Leizarragan Verb". Epistola ad Hebraeos. London, 1910, eraskiñean.

12. Ikus: G. Lacombe, "Du Nouveau sur Liçarraga et ses collaborateurs". RIEV, 1931, 362 or.

13. Ikus: Leizarraga, "Kalendrera", Rochellan 1571.

14. Ikus: J. Vinson "Essai d'une Bibliographie Basque"n Liçarrague atala.

15. Diccionario Tri-lingüe – Introducción.

bideak argitaratzen dira. Leizarraga-ren liburuetaz egin dan ekoizpen oso ta zintzoena, kritika-bidez antolatua. Schuchardt-en sarrera iakintsu ta zabala dakar alemaneraz.

1908 urtean.

The Trinitarian Bible Society. London

IESUS CHRIST GURE IAUNAREN TESTAMENTU BERRIA. (Azkeneko orrialdean itz auek dakarzki): "Rochellan 1571-garren urtean eta berriz Elsaseko Strasburg-en 1900-garrenean, argitara ilki zen translatione hunen egilearen izena da Joannes Leizarraga Berascoizcoa".

Ekoizpen txukuna ta E.S. Dodgson-ek zuzendua usma diteke, liburuxoak ezer aipatu ez arren. 1571 garreneko textua osorik ematen zaigu bertan.

Orainartekoak ekoizpen osoak dituzute. Zatika ere agertu izan da Leizarraga-ren lana euskaltzale iakintsuen lagungarri. Onatx bi behintzat:

1874 urtean.

Bayonne – P. Cazal, Imprimeur

L'EVANGILE SELON SAINT-MARC TRADUIT POUR LA PREMIERE FOIS EN BASQUE PAR JEAN LIÇARRAGUE DE BRISCOUS

Argitaldi au Julien Vinson-ek egin zun lendabizikoaren arabaera.

1877 urtean.

Paris – Maisonneuve et Cie. Editeurs.

EVANGILE SELON SAINT MATTHIEU TRADUIT PAR LEIÇARRAGUE

1571. Reedité par W.J. Van Eys.

Argitaldi garbia au ere, 1571 garrenekoaren aiora antolatua.

"The Trinitarian Bible Society" k Testamentu Berri osoaz landa ebaingeri, Bidalien egintza, Bidalien idazki ta Agerketa, idaztiño berezietan argitara iaurti zitun. Bat behintzat ementxe daukat: "Evangelio Saindua S. Ioanne-ren araura". Au ere 1908 garrenean argira ilkia.

1828 urtean.

Bayonnan, Laigne-ren Imprimerian

JESUS CHRIST GURE IAUNAREN TESTAMENTU BERRIA Lapurdico Escuaralat itçulia.

Itun berri guzia dakar onek ere. Bere textua Leizarraga-rena dala esan diteke, zerbait aldatu ta garbitua, protestante baltzuen diruz argitarazia. Esku pixuz zuzendu nai izan zun ekoizlari berriak eta orregatik edo, edapen laburra izan zun liburu onek. Vinson-ek bibliographian dio, Leizarraga-ren izkera irabiatu zun euskaldun onek aren itzulpena alperrikaldu besterik ez omen zun egin. Ene iritxiz, liburu onen egilleak xede obeagorik izan zizun, euskera garbitze-koa alegia. Itz bitxirik idoroko du irakurleak bere orrialdeetan.

Matai-ren XVII garren ataleko asierak iarriko ditizuet Leizarraga ta 1828 garrenekotik artuta:

LEIZARRAGA 1571

Matai, XVII, 1, 2

1- *Eta sei egunen buruan ar zitzan lesusek Pierris eta lakes eta loannes haren anayea, eta eraman zitzan apart mendi gora batetara.*

2- *Eta transfigura zedin hayen aitzinean eta argi zedin haren begithartia iguzki bezala, eta haren habillamenduak txuri zitezen argia bezala.*

1828'ko Itzulpena

Matai, XVII 1, 2

1. *Handik sei egunen buruan Jesus-ek artu zituen Pierres, Jakes eta Joannes haren anaya, eta bazter eraman mendi gora baten gainera.*

2. *Eta berziruditu zen heyen aitzinean eta haren bisayak distiatzen zuen iguzkiak bezala eta haren bestimendek izarniatzen zuten argiak bezala.*

Eguerdiko eguzkiak bezin argi darakuskigute erkapen ok bigarrengoaren txukun ta garbi naia Leizarraga-ren itzulpenari irraituz. Ala ere ioskera uts larriak arkitzen dira ekoizpen onetan. Aipatu atalean bertan ara zer idazten dun: "9- *Eta menditik iausten zirelarik, Jesus-ek manatu zioten ez erraiten nihori zer ikusi zuten gizonaren semea iletarik piztu den arte-raino.*" Leizarraga-k aldiz, ederki: "9- *eta menditik iausten zira-dela, mana zitzan lesus-ek, zioela, nehuri ezterrozueta visio-nea gizonaren semea iletarik resuszita daiteno.*" Gaurko idazkeraz aldatu ditut.

Baiona-n bertan urrengo idaztiok ere ekoituak (argitalduak) izan ziran, Laigne-n irakolan:

1825 urtean. JESUS-CHRISTOREN EVANGELIO SAIN-DUA S. MATTHIUREN ARABERA

1828 urtean. JESUS-CHRISTOREN EVANGELIO SAIN-DUA S. MATTHIUREN ARABERA Lapurdico escuarat itçulia. Edicione berria.

1828 urtean. JESUS-CHRISTO GURE JAUNAREN LAUR EBANGELIOAK ETA APOSTOLU SAINDUEN EGUINTCEN LIBURUA. Lapurdico euskaralat itzulia.

Iru ekoizpenok eta lenago aipatu JESUS-CHRISTO GURE IAUNAREN TESTAMENTU BERRIA England-eko Bibli-baltzua-aren eragitez irarri ziran. Laurok idazle batek antolatuak Leizarraga-ren textua irabiatuz. Beraz, arestian esana iru idazti oiei ere bete-betean datorkie.

Protestanteak erne ta aiduru ibilli dira beti ere idazteunak kristauen artean zabaltzen. Onatx arrezkero argitara ditutenen zenbait zeapen:

1838 urtean.

Madrid Imprenta de la Compañía Tipográfica.

EVANGELIOA SAN LUCASEN GUISSAN.

1884 urtean.

Madrid.- Bigarren ekoizpena.

G. Borrow-ek dakarrenez<sup>16</sup> Oteiza zeritzan osagille batek gipuzkeratu zun. Ez omen zitzaien atsegin itzulpen au Borrow iaunari, bainan beste itzultzalerik ez omen zun arkitu al izan eta argitara iaurti zun.

1868 urtean.

Londres-en

EBANYELIO SAINDUA SAN LUKEN ARABERA. Lapurdico escuaralat itzulia.

1871 urtean. Londres-en: "bigarren aldiari imprimua"

1878 urtean. Londres-en: "hirugarren aldiari imprimua"

1886 urtean. Londres-en: "laugarren aldiari imprimua"

England-eko Bibli-Baltzuak argitaraziak. Itzultzalea ez da ezagun.

16. "The Bible in Spain". London 1838.

1870 urtea. Londres  
JESU CRISTOREN EVANGELIOA LUCASEN ARAURA

(?) urtea. Buenos Aires. Bigarren ekoizpena.

Itzulpen auek gipuzkerazkoak dituzute.

1873 urtea. Bayonan.  
EBANGELIO SAINTIA JESUS-KRISTENA JONDANE  
JOHANEREN ARABERA

1888 urtea. Orthecen. "Bigarren aldia imprimatia".

Anna Urruthy'ren xuberoerazko itzulpena. Leizarraga'ri iarraituz egiña dirudi une askotan, arena ordea, emakume onena baino askotaz iatorragoa da. "*Hatsean zen hitza, eta hitza zen lainkoa baithan, eta lainko zen hitza*" dio Leizarraga'k. Anna Urruthy'k aldiz: "*Hatxarrian Elhia cen, eta Elhia Jaincuareki zen eta Elhe hau Jainkoa zen*". Ikus ditekeenez, ez dago alde aundirik batetik bestera.

1873 urtea. Baionan  
Jondane PHETIRIREN EPITRIAK

1887 urtea. Baionan  
JONDANE PHETIRIREN EPITRIAK. Bigarren ekoizpena.

Itzulpen au ere, xuberoeraz, Anna Urruthy'k egiña da.

1879 urtea. Londres'en  
JESUCRISTOREN EBANGELIOA JUANEN ARAURA  
Gipuzkerazko itzulpena.

1887 urtea. Londres'en  
EBANGELIO SAINDUA SAN MARKEN ARABERA.  
Lapurdiko eskerarat itzulia.

1887 urtea. Londres'en  
EBANGELIO SAINDUA JOANESEN ARABERA. Lapurdiko  
eskerat itzulia.

Ebaingeri biok Duvoisin'ek itzuliak dituzute, eta protes-  
tanteak, oi duten gisan, zenbait itz aldaturik argitaraziak. Bibli-  
Baltzuaren ekoizpena.

1879 urtea. Paris. Bonhoure et Cie.  
PERLAZCO COLIER BAT

Perlazko idunek au Itun Berriko zenbait alez edo atalez  
antolatua da, itzulari berezietatik artuta.

Ona emen Leizarraga'ren saldoa bukatuxe. Ez dut uste  
oro aipatu ditudanik, geienak bai noski, eta aipatu ditudan  
liburu ta liburuñoak, asko txikiak baitira eskuartean erabilli ditut  
eta irakurtzeko zoria ere izan dizut.

Bonapartera baino len, saldotik landa dabillen ekoizpen  
bat aipatuko dizuet.

1831 urtea. Toulouse. Imprimerie de Vieusseux, Rue S.  
Remo, n. 46.

SERMON SUR LA MONTAGNE EN GREC ET EN BASQUE  
... Par M. Fleury de Lécuse.

*Pase glosa exomologesetai to Zeo (eladerazko elatzez)*  
*Mihi guziak Laudorio emanen dio Yainkoari.*

Liburutxo ernegarria. Iesu'ren mendiko itzaldia gerkeraz  
ta euskeraz dakarzki Matai Deunaren V-VI eta VII garren atale-  
tatik artuta. Egilek aitortzen digu orpoz-orpo iarraitu diola  
Leizarraga'ren itzulpenari. Atxiki bazaio ere itzulpena  
Fleury'rena da ta gainera egoki egiña. Eladerari itzez itz  
darraikio, euskal ioskerarik ukatu gabe.

## BONAPARTE PRINTZEAREN INGURUKO ITZULARIAK

Louis Lucien Bonaparte printzea, bonapartetarren seni-  
tarteko ta Napoleon Prantzi'ko Imperadorearen lengusua.  
Izkuntza zale amorratua, laister euskeraren edertasunak lillu-  
ratu zun eta su ta gar gure izkera ikastera iarri zan. Buru argia-  
ren iabe zenuten printzea.

Ez du beste iñork, Urkixo iaunaren esatez, Azkue iaunak  
izan ezik, ainbeste lan euskeraren alde egin<sup>17</sup>. Euskalerra  
zear ibilli zitizigun izkelgi guztiak ondo-ondoraño ikasteko.  
Liburu ederrik ere argitaratu zun euskal gaietaz, zenbait  
izkuntzetan, munduko iakitunei euskeraren edertasun ta  
berezitasunak ezagutarazteko. Arrigarria benetan printze iaki-  
tun onek euskeraren onez egin zun lana.

Bakarrik, iakiña, ezin zezakean lan izugarri ori egin.  
Ortarako euskalazale azkarrenez inguratu zan eta izkuntz-ikas-  
ketarako itzulpen eta idazlanik asko, euskeraz, eragin zizkien.  
Printzeak euskalki guztiak ezagutzen zitun eta gainera errexta-  
sunik aundienaz mintzatzen zan euskalki geienetan. Aren era-  
gitez euskera liburu ederrez aberastu zan eta euskal-filologiak  
aurrerapenik egin zun mundu guzi-iakintsuen artean, Europe'n  
batik bat.

Printze maitagarri onek bere lankide guztiekin idazkiz  
artu-emanean iraun zuen. Amaikaxo karta eder, argi ta iakin-  
tzaz kuin-kuin, atera ziran bere lumatik. Guziak iakingarriak.  
Ezagun nai litukenak ez duke RIEV aldizkariaren orrialdeak  
ikertzea besterik. Ikasgarririk ediroko du noski.

Argitara zitun euskal-idaztiak apain ta dotoreak dituzute,  
diru ederren ordain irarriak seguru ere. Ekoizpen urriak iaurti  
zitun; amar, amabost, ogeitabost, 250 alekoak, batzuetan,  
iakintsuentzat baizik ezpaizitun argitaratzen. Ori dala bide  
bakan gertatu dira eta idazti sal-erosketan salneurri gorenak io  
ditute.

Printze aundiak izkuntz eta euskal arakatzean, batik bat,  
bere ondasunak eralgi zituan. Gabe ta beartsu London'en  
zendu zan. Illondoan, aren liburutegia idazti bakan ta bikañez  
ornitua, alargunak saldu zun eta toki askotara barreiatu zan.  
Euzkadi'ko lau Aldundiek euskerari zegozkionak, geienak,  
erosi zituten eta euren artean banatu. Gaur ere Aldundi bakoit-  
zaren idaztitegietan arkitu ditezke.

Ark argitarazi Itun Berriarekiko lanak aztertu baiño len  
oartxo bat egin bearrezko dizutet. Elizak agindu oarkizunik  
eztakarre baimenik. Nunbait idatzi zuen Printze iakintsuak:  
"*Gizonen itzak lainkoarena naasi ta zikindu besterik ezdagite,*  
*beaz ez daukagu lainkoaren itzari oarkizunik zertan geitu.*  
*Gainera nere ekoizpenak iakintsuentzat egiñak dira*". Etzun  
bear bada, Eliza arbuaiatzen, bainan ezin zun egari oarkizunik  
itzulpenetan iartzerik. Intxauspe Kalonjeak egin idazteunaren  
argitaratzea orretzek eragotzi zun. Intxauspe'k, eliz-gizonez,  
etzuen nai bere lanik oar eta baimenik gabe argitaldu.  
Printzeak ordea, etzun etsi. Bestalde, arek irarri-azi zitun eus-  
kerapen guztiak euskal-katolikuak egiñak dituzute, apaiz ata  
lekaideak geienak.

Bonaparte'ren baranoan egindako itzulpenak irar-urteari  
nagokala aipatuko ditut.

1856- Bayonan.

Andere Lamaigniere alhagunxaren impremerian  
Pont Mayoreco Karrican 39

17. Ikus: RIEV 1910.



JESUS-KRISTEN EBANJELIO SANTIA SEN MATHIUREN ARAUERA, Inchauspe Apezak, zuberoko uscaralat utzulirik Louis Lucien Bonaparte Printziarentaco.

Amabi ale besterik etzitun irarri. Intxauspe apaiza euskalari ta euskal idazle azkarra zan. Vulgata'tik itzuli zun Matai deunaren berri ona egoki baiño egokiago.

1856- Bayonan.

Aipatu irarkolan

L'EVANGILE SELON SAINT MATHIEU TRADUITE EN BASQUE, DIALECT BAS NAVARRAIS, par M. Salaberry (d'Ibarrolle) pour le prince L. Lucien Bonaparte.

Amabi ale argitarazi zitun. Salaberry'k Maistre Sacy'ren frantsez itzulpenetik berea antolatu zun. Bonaparte'ren idazkietatik agiri dan lez, itzulpen ori aurrenekoan atsegin izan zitzaion, baiñan geroan oso gaizki egiña zegoela ikusi zun eta irar-uts asko arkitu zituen.

1857- Londini

PRODOMUS EVANGELII MATHEI OCTUPLI, SEU ORATIO DOMINICA

Iru orrialde. "Gure Aita"ren itzulpena sei euskalkitan. Eun ale argitara zitun.

1857- Londres

EL EVANGELIO SEGÚN S. MATEO TRADUCIDO al vascuence, dialecto navarro, por D. Bruno Echenique de Elizondo, para el princ. L.L. Bonaparte.

Amar ieki soilik argitara zitun. Bruno Echenique nor zen iakin nai lukenak ikus beza Urkixo iaunak idatzi lan ederra: "*Cartas escritas por el príncipe L. L. Bonaparte a D. Bruno Echenique*" RIEV 1908, 215 or. ta abar. Berrogetabat idazki dira. Euskerapen au arrezkero Echenique'k zuzendu zun, Bonaparte'ren aolkupean, baiñan ekoizpen berririk etzan argitaratu.

1857- Londres

EL EVANGELIO SEGÚN SAN MATEO, traducido al vascuence, dialecto vizcaino, por el P. Fr. José Antonio Uriarte.

Amaika ieki baizik etziran argitara. Uriarte'z, geroago, zerbait esango dugu, aren Itun Zar-Berrien itzulpenaz aritze-koan.

1857- Londres

EL EVANGELIO SEGÚN SAN MATEO traducido al vascuence, dialecto guipuzcoano.

Zortzi ieki baizik etziran argitaratu, eta itzulpena VIII-28 garrenean etetzen da. Bonaparte'k berak itzulia uste zun Vinson'ek. Urdabe ondarribriarrarena zenuten ordea, Bonaparte'k zuzendua, upelka uts egin bai zitun itzultzale nagiar<sup>18</sup>.

1857- Londres

EL APOCALIPSIS DEL APOSTOL SAN JUAN traducido al vascuence, dialecto vizcaino, por el P. Fr. José Antonio de Uriarte.

Berrogetamar banako ilki ziran.

1858- Londres

EL APOCALIPSIS DEL APOSTOL SAN JUAN traducido al vascuence, dialecto guipuzcoano, por el P. Fr. Antonio de Uriarte.

Berrogetamar banako argitarazi zitun.

18. Ikus: G. Lacombe, "Les traductions de l'évangile de Saint Matthie" Eusko-Jakintza, 1947.

1858- Londres

L'APCALYPSE DE L'APOTRE SAINT JEAN traduit en basque souletin par l'Abbé Inchauspe.

Argitaldi au ere berrogetamar alekoa.

1858- Londres

EL EVANGELIO SEGÚN SAN MATEO traducido al vascuence, dialecto guipuzcoano, por el P. Fr. J. Antonio de Uriarte.

25 ale baizik etzitun argitara.

1868-

JESUCRISTOREN EVANGELIO SANDUA JUANEC DACARRREN GUISARA. Don Joaquin Lizarragac euscarara itzulia itzez-itzez, daiquen diña, eguiaren amorez ta Luis Luciano principeak argitara emana.

Goinapar egoaldeko euskeraz. Itzulpen benetan iakingarria ta ederki egiña, Vulgata'tik noski. Lizarraga etzenuten Bonaparte'n lankide izan, printzea euskal lanetan asi baiño lenago zendua bai zen. Aipatu idazlearen zenbait esku-idatzi Bonaparte'k erosi eta argitara eman zitun<sup>19</sup>.

1878- Londres

PARABOLA DEL SEMBRADOR traducida a los ocho dialectos del vascuence y a cuatro de sus subdialectos.

Euskalkiak: Gipuzkera, bizkaiera, goi-naparrera, goinapar baldeko, benapar etzaldeko, lapurdiera, xuberoera. Euskalkitxoak: Zegama, Otxandio, Erronkari eta Saraitzu.

Berri-on txatal batzu ere argirazi zitun Bonaparte'k

SAN LUCASEN EBANGELIOAREN PARTEAK

Joan III-16 (Azkena-bizkaieraz)

Joan III-16 (azkena-gipuzkeraz)

Txatal oriek bilduta idaztiño txiki bat egiten dute. Agiri da izkuntz ikasketarako argitu zitala.

Itzulpen aundiak, berariz, azkenerako utzi ditugu. Ara emen:

1859- Londres'en

BIBLIA EDO TESTAMENTU ZAR ETA BERRIA. Aita Fray José Antonio de Uriartec latiñezko Bulgatatic lendabico aldiz Guipuzcoaco euscara itzulia. Luis Luciano Bonaparte Principeac eta Don José Antonio de Azpiazu Guipuzcoatarrac lagunduric.

Itzulpen aundi onen iru liburu baizik etziran irarri, ots: "Genesisco Liburua", "Exodoco Liburua", eta "Leviticoco Liburua". Egia da bertzalde, Aita Uriarte'k Itun Zar-berri osoa euskeratuta zeukala. Lan izugarria, Bonaparte'ren eragitez burutua. Oraindik, or nunbait, Uriarte'n esku-idatziak gordeta daude. Ozerin-Jauregi Aitak, txosten bat aurkeztu zun Oñati'ko Eusko Ikaskuntzaren Batzarrera, Uriarte'n biblia ekoiztu bear litzakela-ta<sup>20</sup>.

Uriarte aba Ispaztergo seme zenuten, euskalari argi ta errimia, beraz, izkelgiz bizkaitarra. Bonaparte'n lankideetatik gartsu ta langilleena zenuten eta biziki maite zun printzeak lanbidean ematen zion laguntasuna zala-ta. Gaurkoan Itun Berriaz ari naiz, beraz ez dagokit Uriarte'n Itun Zarreko itzul-

19. Ikus: G. Lacombe "Les traductions de St. Matthieu". Eusko-Jakintza 1947.

20. Ikus: *Primer Congreso de Estudios Vascos en Oñate*, deritzan liburu aundia.

penak aztertzerik. Damurik, Itun Berri'rik ere etzion argitaratu printzeak. Ala ere, gorago aipatu ditugu Matai deunaren berriena gipuzkeraz ta bizkaieraz argitaratuak, baita Jon'i ageritakoa ere bizkai ta gipuzkeraz, oro Uriarte'k itzuliak. Bizkaitarra zan arren, aixa zerabilen gipuzkera ere. Bizkaiera egokiago noski. Vulgata'tik ietxi zitun bere itzulpenak. Onek ere, orduko itzulari geienak –guzial ez esateko– bezela egin oi zituten utsak egiten ditu. Itzulpenak erabat artuta ariko geranean, zenbait uts azalduko ditugu. Alabaiña, idazle azkar oni euskerak lan ederrik zor dio. Azkue iaunak ere maite zun Uriarte'n idazkera, bizkaieraz ari danean batik bat<sup>21</sup>.

1859-Londres'en

BIBLE EDO TESTAMENT ZAHAR ETA BERRIA, Duvoisin Kapitainak Latinezko Bulgatatik lehenbiziko aldiko Laphurdiko eskarara itzulia. Luis Luziano Bonaparte printzeak argitara emana.

Onatz Itun Zar Berriak osorik euskeratu ta osorik argitaratuak. Dударik gabe, euskal bidean printzearen lanik garaienetakoa. Arritzekoa ere Duvoisin'ek izan zitun adore ta egoarria ikaragarritzko lan au burutzeko. Eskuardean dizut: bost liburu tzar, 1374 orrialde, apain ta txukun irarria; benetan kaisar esku-agiria! Azkeneko orrialdean itz ok dakazki inglanderaz: "*This is to certify that the printing of the Work commenced on Wednesday, 9<sup>th</sup> of March 1859, and Completed on Monday, 27<sup>th</sup> of March, 1865.*" Beraz 1859 garreneko Epailaren 9'an asi eta 1865 garreneko Epailaren 27'an irar-lana bukatu zan. Sei urte aundi maundi iraun zun, gutxienik, Duvoisin'en itzul lanak ere.

Aren eskutizetatik ageri denez, itzuli-ala printzeari bialtzen zizkion euskeratu liburuak. Lapurdi'ko euskera aberatsez iantzita daude euskerapenok. Duvoisin'ek garai artako idazlearen artean euskerarik garbiena zerabilen, eta gaiñera ugariena. Hiribarren apaizak zuzendu zion eskutiz batean auxe irakurri gertzake: "*benetan arrigarria zure ugaritasuna; euskal putzu ondobakoaren iabe zaitugu*"<sup>22</sup>.

Itun Zar – Berriok irakurri ditut, baiñan nere egingoaren mugartetik ez ateratzeko, Itun Berriaz soilik, solas duket.

Errexkeriaren egatsetan diaokigu idazle azkar au bear baino maizago, itzulpenaren kaltetan. Gaur egunean idazle batek ere egingo ez lituken utsak, Duvoisin'ek xalotasunik aratzenaz egiten ditu. Egia esan, garai artako idazleak relatiboko esakunetan tupust egiten zuten, eta buruz-bera erortzen ziran. Duvoisin'eri ere, beste ainbeste gertatzen zitzaion.

Iztegi ugariaren iabe, naizta zenbait itz berak asmatuak, baiñan ez Azkue'k uste zitun beste. Itzak asmatzeko eskubiderik ezin dezaiokegu idazle bati ukatu, naurriz ari danean. Erdera kutsurik ere ba' dizu, ez ordea "Gure Herria"n norbaitek aditzera eman zigun beste<sup>23</sup>. Besterik merezi du idazle iori onek. Aren kemeneko euskal idazleak bear genituke gure izkerra zailutu ta pizkortzeko.

250 ieki argitara zitun Bonaparte'k. Gaur egunean Duvoisin'en itzulpena bakan ta arraro gertatu da. Ekoizbearra litzakela zion norbaitek<sup>24</sup>. Merezi luke iaun aundi orrek goratzarre ori.

21. Ikus: Azkue "Morfologia Vasca" eta "Euskera", Euskaltzaindiko lan eta agiriak. Bilbao'n 1924.

22. Ikus: Daranatz, "Correspondence du Capitain Duvoisin" RIEV 1928, eta Dubarat, "Lettres adresées au capitain Duvoisin" RIEV, I, II, III, IV.

23. Ikus: Gure Herria.

24. Ikus: Ibar "Genio y Lengua" 1936.

Duvoisin'ekin Bonaparte printzearen urrezko aroa, Itun Berri itzulketan, bukatzen dugu. Ez al zakit, aspertu irakurle. Ondoren Haraneder eta Katolikuen saldoa ikuskatuko dugu, labur, bada ertzeak galtzen ari naizela derizkiot.

## HARANEDER TA KATOLIKU ITZULPENAK

Sail ontan sartzerakoan lotsa ere ematen dit ao betez aitortu bearrak katolikuek, Eliz Ama'ren babespean, ia deus ere ez dutela egin euskeraz, idazteunen itzul lanetan. Aurreragoko sail bietan arakatu ditugun itzulpen pilloak ikusi ondoren, negargarri derizkiot katolikuen urrikeriari. Sinisgaitza, baiñan egia: Oraindik agertzeko dago, elizaren magalean, Itun Zar-Berrien lenengo euskal itzulpena! Lotsagarria baiña egi borobilla.

Izan ditugu bada euskaldunen artean apaiz eta praille ugari! Egia ori ere, baiñan ez dute ezertxo ere egin. Eliz-liburu mengel ta txoraxka ugari bai eman dizkigute, Itun Zar Berri osorik ez ordea, eta zatika ere oso gutxi. Etsaien eraso ta garra ikusi-arren, ez dira mugitu ere egin euskeraz launaren itza iazteko. Etsaien aurka gogorak esan eta idatzi bai, erderaz, besterik ez ordea. Eta ori ez izan aski, ene apaiztxo ta lekaidetxoak. Etsaiari izkillu berdiñez edo obeagoz iazarri bear gatzazkio. Edota euskaldun kristaua alozkerian murgilduta irautea nai ote duzute? Ala dirudi beintzat.

Egia da Trento'ko Batzarrak eragozpen aundiak iari zituela bear bezela Itun Zar Berriak argitaratzeko. Baiñan Batzar orrek etzien apaizei eskuak antxumatuta egoterik esan, etsaiek, liburu deunak, euren gisara, zabaltzen ari bitartean. Gure eliz-gizonak patxara ederrean egon zaizkigu erriaren sinisimen gartsuan entzindurik. Españaren ikazkin-fede edo dalakoa, baezpadakoa da gero! Kasu bada entzinmen larregirik ez ukan.

Aitor latz onen ondoren goazen arira.

1855- Baionan

E. Lasserre, Aphezpicutegiko liburu egillea baitan.

IESU-CHRISTO GURE IAUNAREN TESTAMENT BERRIA. Lehenago I.N. Haraneder, Done loane Lohitzuko laun aphez batec escuararat itzulia; Orai, Artha bereci batekin, Garbikiago, Lehenbiziko aldikotzat aguer-eracia, lapurthar bi laun aphezek; laun Aphezpikuaren baimenarekin.

Ondoren, "Lekhukotasuna"

Titulu aundi maundi orren itzalpean, lau ebaingeriak besterik ez dakar liburu orrek. Bidalien egiñak, Bidalien idazkiak eta Ion'i Ageritakoa peit ditu. Iztetitxo benetan aipagarria erantsi dioete, oro euskeraz.

Vinson'en "E. d'une Bibliographie Basque"n dionetik, Haraneder'ek Itun berri osoa euskeratu zun eta aren lana oraindik argitaratzeko dago 1740 ezgeroz. Donibane Lohitzu'ko erretore zan eta euskal idazle argienetakoa. "Philotea" ta "Gudu Izpirtuala" 1749 eta 1750, Sales'gandik itzulita argitaratu zitun<sup>25</sup>.

Haraneder'en Testamentu Berriaren "Aitzin-solasa" Vinson'ek dakar gorago aipatu liburuan, 600 grn. orrialdean. Asteko bere garairaño egindako euskal itzulpenez mintzatzen zaigu, ots, Leizarraga'ren itzulpenaz, besterik ezpaizegon. Ara zer dion: "*Baiña nola dohakabe hura (Leizarraga) erreligione Catholica eta egiazkoa utzi orducotz ja itzuli baitzen bera*

25. Ikus: Daranatz "Le Testament Berria de Haraneder" RIEV 1908, 152 or.

*Calvin'en secta izurritzaturat eta haren heresia poçoatuaz ctsatua ecin gelditu da bere obrari iratcheki gabe zebait lekhan berac artu izan zuen izurritik eta iretsi izan zuen posoinetik*". Beraz euskal kristauak izurritzatu ez zitezen euskerapen berriari lotu zan.

"*Eta hortacotz, irectchiqui izan gaizko lehia handi batekin Eliza ama sainduac beregainqui aprobatua Vulgata deritzan textuaren ez choilki zentzuari eta oraiño eguin ahal bezanbat letrari berari; eta letran zorrtchki eta urratsez urrats iarraikiz*"<sup>26</sup>. Geroago dionez Maistre de Saci'n pantsez itzulpena ere, begipean izan zun. Eta aitortu ez arren, baita Leizarraga'ren itzulpen *izurritzatua* ere, eta onek argi geiago eman Maistre Saci'k baño. Bai orixe.

Iker-gai dugun ekoizpena, liburu izenean dion lez, "*orai, artha bereci batekin, laphurtar bi yaun aphezek garbikiago lehenbiziko aldikotzat aguer-eracia*". Harriet eta Dassance apaizak dira argitaltzaille ok. Dassance urtziztilari sonatua ta prantsez idazlea, euskalduna izanarren. Harriet euskalari yakintsua, euskal iztegi aundi baten egillea (1814-1904). Bion artean Haraneder'en textua antolatu ta txukunagotu zutela dio liburuak, baiñan ara zer dakarren Daranatz'ek "*Curiosités du Pays Basque*" II idazia, 295 orrialdean. Darasanez, Harriet'ek Antoin d'Abbadie iaunari, bere "*Testamentu Berria*" eskeñi zion, eta onatx Abbadie'k banako artan idatzi zuena bere eskuz: "*Maurice Harriet apaizak esan zidan bakarrik antola duala liburu au, eta Dassance apaizak, asmo onik izan arren, ez diola ezertxo ere lagundu*". Beraz Haraneder'en argitaltzaille bakarria Harriet euskalzale kartsua izan zan.

Itzulpen atsegin eta egokia, zenbait oarrez aberastua.

1898- Pau

Ieuschrist Gure Iaunaren lau Ebangelioak

Duvoisin'en itzulpena, apaiz iaun batek zenbait oarrez iauntzia. Itzulpen au Bonaparte'k argitara zusetik artua da.

Orra, Olabide baño lenago, Eliz Ama Deunaren babespean argitara diran itzulpen bakarrak, eta ez osoak, lau ebangelioak baizik ezpaitute.

1921- Jesus'en Biotzaren Deia. Bilbao

JESUKRISTOREN BERRIONA S. JOANEK IDATZI BEZELA

Ormaetxea'tar Nikola jaunak, Olabide'k bere Itun Berrian dion bezela, "*eladeratik euskerara ederki baiño ederkiago itzuli-ta*". Ez dut uste, osorik argitara zuenik, emen ezpaitut aipatu aldizkariaren bilduma ez osorik ezta erdirik ere, auzi ori garbitzeko. Baiñan ageri dinetik, Ormaetxea iaunak, Donibane'ren ebaingeria ez-ezik, besteak ere itzuli zituen. Ara berak diona Zaitegi iaunaren "*Bidalien Egiñak*"en "*Itzaurrean*":

"*Nik ordurako -Itun Berria agertu baiño len alegia- argitara emana neukan laugarren Ebangelioa, baiña beste irurak ez, alderdirik ez neukalako*". Beraz, argi dago Orixe'ren aitorez, Donibanena ta beste ebaingeriak ere itzulirik zeuzkala.

Ormaetxea iaunari dagokio gerkeratiko itzulpenetan lentasuna euskal soroan. Ordurartekoek latin eta roman-izkeratetik egiñak zituten. Orixe'ren lumatik ez da idatz ertunik atera, ori dala bide aren itzulpena itzularen iarraibidetzat iarri diteke.

1898- ARANA eta GOIRI'tar Sabin'ek "*Lenengo Egutegi Bizkaitarra*"n NEKAUSTIA DEUN MATAI'REN GOIZPARRAREN LEGEZ" itzulita argitaratu zun. Eusko Bepizkundearen erne-

razleak ontan ere iarraibidea erakutsi zigun. Itzulpen polita, bizkaierazko bakarra.

1931- Olabide'tar Erraimun, S.I.- ITUN BERRIA  
Bilbao'n, Verdes-Atxirika'ren irarkolan

Orra ITUN BERRIA, Eliz Amaren babespean argitara Testamentu Berriaren euskerazko itzulpen oso bakarra. Olabide'k bere gain egiteko aundi ori artu ez bazuen, oraindik euskera bi milla urte lenago bezela arkituko zan, Itun Berria gabe katolikuen gogoan alapiderako. Erdeldun iaio zan gizon batek, euskera ikasi eta egin zigun lan eder ori. Amaikaxo neke ta naigabez inguraturik, bere anaikide ta elizkideengan-dik nardarik eta zapuzkeririk asko egariz.

Olabide'ren itzulpena, eladeratik zuzenean egiña dago. Dakizutenez, Itun Berriaren izkera, izkera iatorra alegia, eladera duzute, Bidaliek eta ebaingeriek ere izkera ortaz beren liburuak idatzi bai zituten. Eztabaidarik sortu zan aipatu liburu mardula argitara zanean. Zenbait lekaide bekaizti, gogor oldartu ziran Olabide iaunaren lan ederraren aurka. Ba'zan Iruñan "*Zeruko Argia*" deitu aldizkari bat, ango idazle batek gorriak ialki zitun euskeraz egin Testamentu Berri katoliku bakarraren aurka. Ez dut izenik aipatu nai. Baña ialki zituanak bide gabe ialki zitun liburu orren aurkako esamesak.

Euskera iori, aberats, eta tinkoz idatzia da Olabide'ren itzulpena, eta ao batez esango dut, egin dan ederrera dala, naiz protestante naiz katolikuen artean. Olabide'k, bere liburuarekin, Elizaren laidoa ezabatu zuen, eliz-gizonez, gure izkera, lan auetan, lenengo maillan ezarriz.

Izkeraz aberats izanez gaiñera, euskerara ez-eze, edonungo izkuntzetara egin zintzoena da. Liburu ura agertu zanez gero, euskal zaleak ioranez irakurri dute Itun Berria, eta euskel idazle iator ta kementsuenak, iturri ortan alatu izan dira. Nere aitor au ondo dakit utsa dana, eta orregatik ni baiño idaz-aipatuagoena ezarri nai dut emen.

Ara emen Ormaetxea iaunak diona:

"Ar dezagun Olabide GURE ERRIAK ogei urte auetan geienik irakurri dun idazlea ... Egin dun lan izugarriaz ez dira gutxi baliatu ua ezkerotzik. 1924 inguruan zan. An etorri zitzaidan Bilbao'n Itun Berria lenbizikoz itzuli zunean: "*Emaidazu zure iritzia; zurea gero?*" Guzia irakurri ondoren au esan nion: "*Lenengo Ebangelioa poliki; bigarrena polikixago; irugarrena areago, laugarrena ... ta onela ioan nintzan areagoka azkeneraño; Apokalipsi legunena, korapilorik gabe*". Arren, arren, esan zidan; berriro egin bearrean nago bururen buru. Ez, nik, utziozu dagon bezela; orrela ikusiko du gero zer aurrerapen egin duzun eta nola. Berri berritik itzuli zun guzia, ta ark itzuli-ala nik irakurri. Bigarrenean tankera berdiñagoa eman zion. Ni Paul Gurenaren eskutitzak irakurtzeko, len ere esan izan dutana, ez noa bestetara. ITUN BERRIA agertu zalarik gure erriaren poza"<sup>27</sup>.

Idazteunetan apaiz ikasi baten aitorez, "*Olabide'ren Itun Berria Testamentu Berriaren irakurri dituen itzulpenetan zintzoena da*"<sup>28</sup>.

Orixe'k aipatzen duen "*gure erriaren poza*" ederki egiaz-tatu zan. Ez dut uste Olabide'n Itun Berria bezin ugari ta laster beste euskal libururik saldu ote den. Lau urte baiño len ekoizpen osoa saldu ta akitu zan, ori gero ekoiztaldi ugari xamarra egin zuelarik. Orra Itun Berriaren bikaintasuna erriak berak erakutsita. Nere etxean ikusia gaiñera: nire amak, bizkaitarra izkalgiz ta sortzez ni bezela, ez-titan irakurtzen zun Itun Berria,

27. Ikus: Zaitegi'ren "*Bidalien Egiñak*". Orixe'ren "*Itzaurrea*".

28. Ikus: Oizartabal'dar Martin "*Iesukristo Gure Iaunaren Bizitza*".

26. Ikus: Vinson "E.B.B". Paris. Haraneder atala.



eta oraindik ere egunero irakurtzen du bere irurogeitamaxei-garren urtean.

Bañan Aita Olabide'ren lan nagusia argitaratzeko dago oraindik, ITUN ZARRA alegia. Emen ere arrigarriago ageri zaigu idazle andi au. Xoraturik irakurri ditut ITUN ZARREKO zenbait idazti. Bañan, ez dut au liburu ori aztertzeke tokia.

1948- Ustaritz

JESU-KRISTO GURE JAUNAREN EBANGELIO SAINDUA  
L. Leon Aphezak eskuarat itzulia.

Leon Apheza, Ustaritz'eko Aphez nagusia, euskalzaile kartsu eta idazle bikaña duzute. Aipatu liburuan, lau ebangelioak soilik ematen dizkigu, euskera airos, txukun eta garbi batean itzuliak.

Olabide ezker, lau ebangelioak elkar-bildurik edo batean ere argitaratu dira euskeraz, lesuren bizitza antolatzeke. Orrelakoak dira Areitio'tar Peli'k "Jesusen Biotzaren Deian" emana eta Iraizoz'ko Polikarpo Aitaren "Iesuren Bizitza", bi-biak lan ederrak, bata bizkaieraz eta bestea gipuzkeraz.

Onela, Itun Berrien itzulpenekiko lan oni azkena ematera noa, Zaitegi'ren "Bidalien Egiñak"etan murgiltzeke.

1954. Zaitegi eta Plazaola'tar lokin, Ph.D.

BIDALIEN EGIÑAK

Zarautz. Itxaropena Irarkolan

Elizak kistar-xeen artean banatu oi dun irakaspenez landa, badu garaiaogorik ere, uzkurtzaren oiñarriak irauli ta barrenki ikasiz, gure erligioaren egia ta lainkotasuna iakintzaren eustazpietan eraikitzeke. Alakoak dituzu Theologia ta oraingoan urbilenetik dagokigun Idazteun Iakitetea. Aipatu iakintzak ez daude nor-naien eskuko, gizon ikasi ta argienen baizik.

Iainkozko iakintza au, geienbat, Idazteunetan eraikia da, andik datorkio, ba, kristautasunari -zugatz adaburutsuari antzo- eze ta sendo iraun-erazten dion izerdi azkurrisua, aietan lainkoaren arnasa ta itza gatzaturik daudelako.

Gurean ordea, uzkurtzaz ari izan diran idazleak, iñoiz ere ez ditute, -iakintza arauz-, liburu orietan datzaten ondusunak euskeraz irauli. Iraultze ori, bestalde, ezin diteke burutu iakintza geienetan bear bezela iantzirik egoteke; ez da nolanaiko lana, lenengo ukaldiz, beste gabe, edonork burutu dezakena. Elizakoez gainera lur iakitatez ere erabat iantzirik bear du ortarako dan idazleak. Eta gurean, damurik, eliz eta erri iakitatez apainduriko idazleak, euskeraz erantzi ta larrugorri ukan ditugu, erderaz ekiñalean gure izkeraren il-kutxa lantzen.

Lan luze onen orrialdeak barna ikusi dugunez, aurretiko euskal-idazleek zerbait egin zuten egun Zaitegi ain iakintsuki dabilkigun bidetik ibil gindezen: ortarako oiñarriak euren lane-kin nolarebait antola ta egokitu ditute. Idazteunen eta Itun Berrien egin itzulpen guztiak, iakin mailla ortarako bidexkak baizik ez dira; labur esan, oiñarri soillak. Beste eliz-liburutxoak, -iainkozaleen iakinmiña baiño gogo-miña alatzeko egokia-goak-, aipatu eustazpiak elkartzeke latsun-orea bezelatsu izan dira, izkera gaitu lanari gagozkiola batez ere. Beraz, oiñarriak ba'genitun, iauregia peit zitzaigun ordea. Eta orra iauregia ere eraikia.

Ortarako, Itun Berriak ditun idaztietatik ernegarriena aukeratu digu idazle argiak, ots, "BIDALIEN EGIÑAK". Liburu ortan Eliz asiberriaren edestia ematen zaigu laburki; Kristo zeruetara ondoan lurrean gelditu ziran ikasleek Eliza eraikitzeke ukan zituten lanak.

Agindu zitzaienez, *Amabiak*, berrogei egunez Goteunaren zai egon ziran Ierusalen'go mandio artan. Artean saltzaillearen utsunea bete zuten Amabien taldea osotzeke, ta Goteune su-mii iduripean burugainera ietsi zitzaieneko, or asi ziran Kristo'ren irakaspene berria orduko mugak barna edatzen. Goteunez beterik zebiltzin iainkozko gizon aien itz berotara gizoste ta erriak ere samaldan zetozen Eliza berria antolatzerara. Bañan zenbat ibillera eder, zenbat atsekabe, zenbat istillu ukan zituten Bidali ta aien ikasleek!

Egia esan, edestitxo au ez da bear bezin ezaguna kristaunen artean, batez ere euskaldunen artean. Beti esan oi da gure erritarrak sinistun dirala, aien sinismena ordea, ez dala bear bezin sendoa liburu deunen ezaguerarik urrienean azia dalako. Ondore kaltegarriak ekarri oi ditu sinismen ez-iakin ta itsu orrek, iñolako argitasun gabeko sinismen karsoil ta erantzi orrek. Gure errialdeetako giro elizkoitik ez ain elizkoietara aldatzen diraneko, euskaldunek, -ez dut esango beren sinismen utsala zeroo galtzen dutenik-, bai ordea erabat otzitzen dirala. Gertakari au oituegia da ez bakarrik euskaldun ez-iakin eta alotzetan, baita iakitun eta erdi-landuen artean ere, oien fedea, maiz, ondar gaiñean iaso etxea bezelatsu dalako.

Ain zuzen, Zaitegi iaunak, aipatu liburuak dakazkin berriak iakintsuki azaltzen dizkigu, iakin-zale zorrotzenaren naikariak gonburutzeko lain. Aurrera baiño len, ikus dezagun liburu iori onen mamia, iraizean badare.

## IDAFTIA MAMIZ

Korapillorik aski biderdiratzen zaizkio "Bidalien Egiñak"-en iruzkinlariari. Leenik, idazle ugariak, sarrera gisa, idaztiño onen egillea nor izan zanentz gurbilki izkatu ondoren, Luka ebangelari deuna izan zala iakintza arauz sendetsirik uzten digu. Egi ori baiesteko Eliz-guraso zaarren aitorrak artzen ditu, Irene Deunagandik asita. Ondoren barneago sartzen zaigu; Bidalien Egiñak-en textua sakonki aztertzen du, idatzia izan izkeran murgildurik, ots, eladeran. Bakoizka arakatzen ditu Luka deuna egille izan zala sendetsi dezaketen esakerak; irugarren berrionekoekin bekaldeuz, argi ta garbi eratzi dezake aipatu berrionaren egillea ta "Egiñak"ena, bakarra dala, Luka ber-bera. Orrezkero banaka zaratzen ditu Luka'ren idaztiño'ko 24 atalak egoki sailkatuz.

An ageri zaizkigu aurreneko atalburuetan, Ierusalengo mandioan, Amabiak, Emakume gurenak eta ikasle samalda Goteunaren zai. Eundaz biltzen omen ziran, Kisto'k agindutakoaren aiduru. Pentekoste egunean bertan, Kepa buru, bidaliak oro goteunez gaiñezka Ierusalen'go kale ta zeietan barreiatzen dira, galut edo diasporatik bildutako iudar guztien aitzinean Kisto bipilki aitortu ta aldarrikatuz. Orra "ELIZA YERUSALEM'EN" erne ta azten.

Urrengo atalean "ELIZA YERUSALEM'DIK ALDE" nola zabalitzen den erakusten digu Samari, Lida, Yope ta beste eskualde batzuetan. Aipatu erriak ez zeuden Ierusalem'etik aldenduegi. Ementxe agertzen zaigu, lenengoz, Saul iudar zintzo ta kristau berrien iazarlea; aurreratxeago, bidali aundiena izango zan onen onbideratzea ematen digu. Atal au, "Saul'en onbideratzea" alegia, irakurgarrienetarikoa duzute.

Ondorengo ataletan "Paul Deunaren lau Bidaldiak" eta "Aitor Gurena" azaltzen ditu idazleak, ugari, sakon, ta luze. Paul deunaren ibillaldietan, ain zuzen, len-Elizaren bizi osoa ardatzaren inguru bezela dabil, baita alderdi guztietako ikasle, bidali ta kistar berri oro ere. Ez da arrigarri, Lukak, Paul'en ikasle izaki, bere irakaslearen ibillera guztiak zeatz meatz

azaltzea, beste bidalienak baiñon areago. Benetan xuspergariari Paul'en bidaldiak! Palaistina utzita, or ageri zaizkigu Paul eta Tiberiade ertzeko arrantzale gizaioak Kistoren berria bipilki zabaltzen Atenai, Erroma eta orduko mundu ezagutuaren mugetako iakintsu ta ez-iaikin oroen aitzinean. "Paul Atenai'n" deritzan atala atsegiñez irakurri diteke, ain baitago ederki landu ta osotua.

Idazlana borobillago ta beteago zedin ez dio bere buruari nekerik ukatu idazle argiak. Zaitegi'ren "Bidalien Egiñak" gai auetaz euskeraz egin lenengo idaztia duzute, ala ere beste edozein izkuntzaz argitaratuak bezin okitu ta aberats nai izan du. Ortarako izkera iakintsu geienetan egin liburuak begipean ukan ditu. Alare aien esanak erkatu ta aztatuz, bere esatekoak ere ukan ditu idazle iatorrak, benetako iakintsu-lan bati dago-kionez.

Liburu barna gai aukeratu dituten idazle aundien izenak arkituko dituzu, antxiñako ta oraingo. Ez bakarrik exegesis ta textuaren baiespernari buruz baita gaurko edestilarien arteko auziei buruz ere. Idazteunak sarri izan dira artu-erabiliki iakintsu otsezko gizonen luma muturretan, batzu sinistun, bestetzu sinisgabe ta arrazoizale. Zenbaitek Itun Berriaren zindotasuna ere ukatu dute, baiñan egun liburu onen zindotasunik ezin diteke uka. Ala erakusten digu Zaitegi'ri Harnak eta beste iakintsu aundien esanak bere burupidearen sendogari ekarki. Gizon ez iakiña bear du, egun Liburu deunen zindotasuna ukatzeko, Itun Berriarena batez ere. Ia bigarren gizaldirarte garamazkiten esku-idaztiak aztertu ditute iakintsuek, eta liburu aietan ialki zenbait gauza –lenago edestiak argitu ezin zitzenak– egun eguzki argitan iarri zaizkigu istatsu, lurpe ta arkeologi billaketa arrigarriek esker. Orrelako zenbait, liburu ontan aipatu eta ikertuak ere arki zenezazkete.

Exegesis gai aukeratu ta nabarmentzeko, izkera auzian ere iñolako bildur gabe ondatzen zaigu egillea. Zaitegi'ren liburu eladerazko ez-eze, eberkerazko esakunez ere ondo orniturik dago. Barrenki aztertzen ditu itzak eta idazkun osoak gerkerak illunegi gertatzen zaionean eberkerazko edo aramai-kerazkookin bekaldeurik.

Alde ederra liburu okitu ontatik orain arte euskeraz eman dizkiguten liburutxo txepeletara. Emen ez dago galtzekorik, ez otapurrik: dana da mami, dana da iaki. Batez ere dana duzute iakintzaren erlantzez iantzi ta apaindua, ez aotik ortzerako esankizun utsalez.

Nola egin edo burutu al izan du idazle azkarrak ain lan aundi eta bete? Bear bezela aztertu ondoren, merezi du galdera onexek erantzun egoki bat. Zaitegi iauna buru argi ta naimen sendo baten iabe izan da beti ere. Ikasten zebillenean ere, euskera izan zuen, ordea, bidelagunik kutunena, eta aberri izkera ez zitzaion oztopo izan aipur garaienez bere ikastaro guztiak burutzeko. Ez zun euskerarik baztertu aipu kaxkarretara ere nekez iristen diran gure arteko erdel-zulo aunitzek bezela.

Egun batez, lainkoak ala naita, San Salvador'ko apaizgaitagian Idazti-Deunen Irakasle izenta zuten. Ain zuzen ere, "Bidalien Egiñak" ikasleei azaldu bearrik arkitu zan. Azalkizun aukeratu dituzute nola-nai egin ditezkenak; irakasleak bear bezela argitu ta iantzi nai baldin ba'ditu, buru belarri sartu bear du bere egitekoak. Orra gure Zaitegi Bidalien Egiñak gogoz ikertzen ta apaizgaiei sakonki azaltzen. Iakiña, gaiok erderaz azaldu bear zitun, apaizgaitegietan oi bezela, bada Elizaren erabakiz Ikastetxe Nagusi ta Apaizgaitegietan gai aukeratu nor-bere izkeraz azaldu ditezke.

Baiñan zeregin artan ere, euskera beti izan zun gogoan eta ikastolarako barrenki ikasi gai aukeratu iakintsuki mugatu, eratu

ta taiutu ondoren euskeraz iantzi zitun. Eta ederki iantzi ere! Egun esan dezakegu gure euskerak ez diola zorrik iñungo izkerari gai aukeratu erabiltzen. Iakitun izaki, iakitun lana euskeraz egin digu. Orra liburu au nola sortu zan.

Gure artean izan ditugun iakintsu guztiak Zaitegi'ren euskalzaletasuna ukan ba'lute, bakoitzak bere arloan lan ederrik burutu zezakean eta euskerarik ez genuke ikusiko hainbeste iakintza-sailetan ain gabe ta txiro. Baiñan euskal iakitunek, –Zaitegi bezela apaizgaitegietan irakasle izan direnak eurak–, zerabilzkiten gai sakonak erderaz iantzi naiago izan ditute. Euren bizibideari ukorik egiteke euskera gaitu zezaketenak, ez dute gaitu. Lan aztuna zinki, ala ere euskeraren maitasunak arindu ez dezakean lorrik ez dago; iakiña, maitasun ori benetakoa danean ez apain gaituek soilik, nexka ergelen gorritzat bezelakoa. Euskera aberasteko ez daukagu bide egokiagorik, ots, bakoitzak bere bizibidekoak euskeraz landu.

Bide ortatik iritxiko gera ain luzaro ames dugun Ikastola Nagusirako ez ezik, txikirako ere liburu bikaiñenak gerturik idukitzera. Gaurko egoera negargarri ontan erderaz azaldu bear dirala gai guztiak? Zaitegi ere beste ainbeste gertatzen zitzaion, ala ere emen daukazute bere irakaspenen zitu arrigarria. Ar ezazute iarraibide eder au apaiz, irakasle ta euskaldun giza-landu guztiok, eta gure euskera goi-mailatara iaso al izango dugu.

Zaitegi Abaren lan ontan bada orratio, beste zerbait Euskalerriko iakintsuak lotsarazi ta gorriarazi bear litukena, euskal-odol tantarik zaiñetan ba'lute beñipein. Liburu eder onen egillea beti bizi izan da Euskadi'tik alde, txikitandik; ez gero urbillean ere, urrutienetan baizik, Ameriketako lurralde txokoenetan, aberri izkeraren oiartzunik ere entzuteke. Orixe'k, liburu oni ezarri dion itzaurre mamitsuan dionez, Zaitegi'k Euskadi ta Euskera beti biotzean eraman ditu nora-nai, eta beti iraun du euskaldun zintzo, eguzkipean zintzorik ba'da. Euskadi'n bizi ta lane egin duten euskal-letradunek aldiz, ez dute ez aberrik ezta euskerarik biotzean ukan erdera baizik, eta bideak dakarrenez, erbesteko kultura erderaz landu digute Euskadin bertan. Oxin aundi bat dago benetan aberrian erderaz ari zaizkigun iakintsu ta atzerrian euskeraz ari zaigun iakintsu enen artean. Eta oxin ori euskeraz, Zaitegi'k bezela betetzen ez dugun bitartean, itozeko zorian gaude. Iarraibide martzal onen berora gure letradunak ere, elizgizonak batik bat, noisbait pizkortuko al dira.

Liburu ontan idazleak darabilen euskerari buruz zerbait esango nuke, baiñan nik baiño milla bider obekiago esan ditu Ormaetxea'tar Nikola iaunak bere itzaurre ederrean. Ark ez du mingaiña mihitokian Zaitegi'ren euskera ta lana goraiatzeko, beraz ni motz geldituko nintzake aren aldean.

Irakurleak aspalditik ezagutzen ditu Zaitegi'ren idazlanak, atzo goizekoak ezpaitira. Bere lan guzietan batasunaren azkuak erretzen du. Batasun bidean, Olabide landa, Zaitegi bezin zintzo iokatu dan gizonik ez duzute arkituko. Urte aunitz lenago, egun bezela erbestean nengoala, Zaitegi'ren euskal itzaldi bat entzuteko egokiera izan nun. Ni eta beste euskaldun asko ere baziran itzaldi ura entzuten. Itzaldia bukatuxe adiskide euskalzale bero bat, eta idazle apaña gainera, urbildu zitzaidan –gaur urrutietan dago gizajoa- eta auxe esan zidan: "Egia diotsut A.: iñozkoan Euskadi'n euskera bakar bat ezartzeko eskubiderik edo almenik izango ba'nu, Zaitegi'ren euskera itsu-itsuan artuko nuke".

Izpidean zegon adiskide ona, ain baita aberats, apain eta neurtua izan ere.

Baiñan euskera ori bizi guztiko ekitez baizik ez du iritxi Zaitegi'k, eguneroko lanez, eguneroko ariaz. Lan aundietan

sarturik ibilli zaigu beti. Olerkari ere bada, bañan olerkaritza lasapide bat besterik ez du izan. Egun ere Guatemala'n Ikastetxe nagusiko irakasle ta berak irazi Landibar Ikastetxeko Artzakarri ta iabe izan arren, euskal-alorrean ari zaigu: berak argitarazten du "Euzko-Gogoa", munduko euskal aldizkari bakarra. Orrez gaiñera, Sopokel'en antzerkien II idaztia eladeratik euskeratu digu, eta gerturik dauka argitaratzeko. Gizon langille ta aspergaitza eguno bada.

Eta ementxe bukatzera noa nere lan luzeegi au. Ez ordea euskaldunei esateke arduraz irakurtzeko "Bidalien Egiñak". An ikasiko dute gure euskera bear bezela maitatzen, soint ta gogo, biotzez ta buruz, baitare idazti deunak barrenki ikasten eta aintzakotzat artzen.

Guatemala'n (C.A.) 1954'gko Bagillaren 9'grn.

## IDAZLAN ONTARAKO ERABILLI IDAZTIAK

### A. Oroetaz

- AZKUE R.M.: Morfología Vasca. Bilbao. Editorial Vasca 1925.
- EGUZKITZA J.B.: Itz bikoitzak darakuskuezan euskal izpiakeraren arau batzu. RIEV, XV-529 eta ondokoetan.
- EUSKERA. Euskaltzaindiaren lan eta Agiriak. Bilbao 1921 – 36.
- EUSKO – JAKINTZA. Revue Internationale des Etudes Basques. Bayonne 1947 eta arrezkerokoak.
- EUZKO-GOGOIA. Guatemala C.A. Zuzendari Zaitegi'tar lokin Ph.D. 1950-1954.
- GURE HERRIA. Baiona 1921-1939 (Harriet, Dassance ta Divoisin'i dagozkienetan).
- LHANDE, P.: Dictionnaire Basque-Français. Paris, Gabriel Beauchesne 1926.
- OLABIDE'tar E.: Itun Berria (Itzaurrea). Bilbo'n Verdes Atxirikarenean 1931.
- ITUN BERRIA (eladeraz). Text With Critical Apparatus. London. The British and Foreign Bible Society. 1945.
- MERK, S.J.: Novum Testamentum Graece et Latine. Apparatu Critico Instructum. Editio Septima. Romae 1951.
- ORMAETXEA, N.: Zaitegi'ren "Bidalien Egiñak"-en "Itzaurrea", "Euskal-aditza" ta beste lanak Euzko Gogoan.
- REVUE INTERNATIONALE DES ETUDES BASQUES. 1907 – 1936 (Aipatu tokietatik landa, maiz erabili dut).

URQUIJO, Julio de: Obras Vascongadas del Dr. Joannes d'Etcheberry. Paris.

VINSON, Julien: Essai d'une bibliographie de la langue basque (I eta II idaztiak) Paris. J. Maisonneuve 1891 eta 1898.

### B. Leizarraga'z bereziki

- GAVEL, (H): Liçarrague ou Leizarraga? RIEV – II, 1908, 479 orrialdean.
- JAURGAIN, Jean: Liçarrague Prêtre. RIEV 1908, 601 orrialdean.
- LACOMBE, Georges: Du nouveau sur Liçarrague et ses Collaborateurs. RIEV 1931. De quelques Diferences lexiques etc. RIEV –I – 180.
- LAFON, René: Le systeme du Verbe Basque au XVI<sup>e</sup>. Siecle (I eta II idaztiak). Edition Demas.
- LINSCHMANN UND H. SCHUCHARDT: Leizarraga(s) Baskische Bücher von 1571 (Schuchardt'en sarrera).
- VAN EYS: Evengile selon Saint Matthieu traduit par Liçarrague 1571.
- VINSON, J.: Liçarrague ou Leizarraga. II RIEV, 250 or. Liçarrague. Un metode reponse a M. Schuchardt. RIEV-II, 369 or. Documents pour ... L'Evengile selon Saint-Marc ... traduit par Jean Liçarrague. Bayonne P. Cazals, 1874 (sarrera batik bat).
- SCHUCHARDT: Liçarrague ou Leizarraga? (Trad. G. Lacombe). RIEV-II, 253 or. Leizarragana. Leizarragana II. RIEV-V, 194 eta 466 or.

### C. Bonaparte ta aren lagunez

- DARANATZ: Correspondence du Capitain Duvoisin. RIEV, XIX, XX eta arrezkero.
- DUBARAT: Lettres adressées au capitain Duvoisin. RIEV-I 49 t.a. II eta IV.
- INDICE de los libros y papeles adquiridos por la Diputación de Navarra de la testamentaría de S.A. el Príncipe L.L. Bonaparte. RIEV-VII, 186.
- LACOMBE, G.: Basquisants contemporains. Le Prince L.L. Bonaparte. RIEV-I, 161 or. Quatorze Lettres inedites du Prince Louis L. Bonaparte. RIEV-II, 775. Le prince L.L. Bonaparte et les dialectes bas-navarrais. RIEV-XIV, 703 or. Fabre, Bonaparte eta Duvoisin. RIEV-XVII, 723.
- SCHUCHARDT: Briefe des Prinzen L.L. Bonaparte an H. Schuchardt. RIEV-III, 133 or.
- URQUIJO, Julio de: Cartas escritas por el Príncipe Bonaparte a D. Bruno Echenique. RIEV 1908, 215 or. eta abar.